AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3559

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko uztailaren 18ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena, eta 2011ko abuztuaren 4ko Ebazpena, aipatutako hautaketa-prozesuan hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena, aldatzen dituena, Asier Ruiz Villota jaunak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako epaia betez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak, 2013ko ekainaren 12ko epaiaren bidez, aintzat hartu du Asier Ruiz Villota jaunak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko martxoaren 2ko Aginduaren kontra jarri duen auzi errekurtsoa (Agindu horren bidez, Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko abuztuaren 4ko Ebazpenaren kontra jarritako gorako errekurtsoa atzera bota zen, 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoan, Gorputz-hezkuntza espezialitatean, txanda librean, sartzeko hautaketa-prozeduran hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman zituenaren, eta espezialitate berriak hartzeko prozedura gainditu zuten behin betiko zerrendaren kontra). Epaiak errekurtso-egileak ondorengo ikastaroa baloratzeko eskubidea duela ziurtatzen du: Pedagogia Terapeutikan espezializazio/gaikuntza-ikastaroa, ikastaro homologatua, 0868EPT372 kodea; oinarriaren arabera izan daitezkeen ondorioekin. Eta, balorazio berria dela eta, plaza esleipena badagokio, ondorio ekonomikoak eta lanbide-ondorioak izan behar ziren egunetik, hautaketa-prozeduraren arabera. Hau guztia aipatutako ikastaroa baloratu behar zaie hautaketa-prozeduran eta espezialitate berdineko gainontzeko izangaiei ere, baldin eta meritu bezala alegatu bazuten orain errekurtso-egileari aintzat hartzen zaion ikastaroa.

Asier Ruiz Villota jauna izan zen Maisu-maistren kidegoko Gorputz-hezkuntza espezialitatean 0868EPT372 kodea duen ikastaro homologatua egin zuen izangai bakarra.

Adierazitako ikastaroa baloratu ondoren, Asier Ruiz Villota jaunari 0,900 puntu II.5 atalean eta 8,8080 puntu lehiaketa-aldian dagozkio. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 8,2017 puntukoa, eta dagokion ponderazioak egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan Asier Ruiz Villota jaunaren guztizko puntuazioa 8,4442koa da.

Horren ondorioz, irakasleen kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedurak gainditu zituzten izangaien zerrendan sartu behar zaio, Maisu-maistren kidegoko Gorputz-hezkuntza espezialitatean, txanda librean.

Horregatik, aipatutako epaian xedatutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko uztailaren 18ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena. Horiek horrela, Asier Ruiz Villota jaunak 0,900 puntu izango du II.5 atalean, aintzat hartutako ikastaroa baloratu izanaren ondorioz, eta 8,8080 puntu lehiaketa-aldian.

Bigarrena.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko abuztuaren 4ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena. Aldaketa horren ondorioz, Maisu-maistren Kidegoan hautatutako izangai gisa sartzen da Asier Ruiz Villota jauna, Gorputz-hezkuntza espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 8,4442 punturekin.

Hirugarrena.– Hogei egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hautatutako izangaiak aurkez ditzan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren 11.1 oinarrian zerrendatutako agiriak, Hezkuntzako edozein Lurralde Ordezkaritzatan.

Adierazitako dokumentazioa ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiririk aurkezten ez badu edo agirien azterketatik aipatutako aginduaren bigarren oinarrian adierazitako baldintzetariko baten jabe ez dela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik merezi dezaken erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

Laugarrena.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak praktiketako funtzionario izendatuko du Asier Ruiz Villota jauna.

Lehiatzaile horrek esleitutako destinoan egin beharko ditu praktikak eta, agertzen ez bada, aukeratze-prozedurari uko egiten diola interpretatuko da.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legeak 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 26a.

(Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ordezkapenagatik, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren arabera)

Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaria,
AMAIA JAUREGIBERRI GOENAGA.